

HITZ BITAN

FLANDRIA

Kargua alderdiaren esku utzi du naziekin lotu duten Barne ministroak

Johan Sauwens Flandriako Barne ministroak alderdiaren esku utzi zuen atzo bere kargua, Bigarren Mundu Gerran nazien alde borrokatu ziren soldadu ohi talde baten bilera batean parte hartu zuela zabaldu ondoren. Dimisioa aurkezteko asmorik ez zuela eman zuen aditzera, halere, Sauwensek. Flandriako Gobernua eta Volksunie alderdiak, bestetik, bilek egin zituzten eskandaluak eragindako egoerari aurre egiteko. Sauwensek onartu zuenez duela 25 urte zen talde horren kide. Legebiltzarreko kide gehienek ministroaren dimisioa eskatu dute.

GUATEMALA

Gerardi apezpikuaren lekaipe laguntzaile ohi bat hil dute tiroz

Barbara Ford lekaipe estabatuarra hil zuten tiroz Guatemala hirian larunbatean. Itxura denez, autoa lapurtu nahi zioten hainbat lagunek zortzi tiro egin zizkionten mojarri. Giza eskubideen aldeko taldeen eta Eliza Katolikoaren ordezkariak, ordea, hilketaren atzean arrazoi politikoak egon daitezkeela azpimarratu dute. 1998an erail zuten Gerardi apezpikuaren laguntzaile izan zen Ford, Guatemalako gerra zibilean Armadak eginko gehiegikeriak jasotzeko idatzi zuen txosten batean. Gotzainaren heriotza argitzeko epaiketa egiten ari denean gertatu da haren laguntzaile ohiaren hilketeta.

KOLONBIA

Espetxetik ihes egin dute 68 preso, FARCEk egindako operazio baten ostean

Hirurogeita zortzi preso inguruk Cauca eskualdeko espetxe batetik ihes egin zuten atzo, FARC Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak talde gerrillariak egindako operazio baten ondoren. FARCEk kartzela horretako atea leherrarazi zuen atzo, preso-ehi egiteko bidea libre uzteko. Iheslari gehienak FARCEko kideak ziren. Atzokoa aurten gertatutako mota horretako ihesaldirik handiena izan zen. Guztira, 54 preso inguruk ihes egin dute aurten Kolonbiako espetxeetatik FARCEk egindako hainbat operaziotan.

EKIALDE HURBILA. Tel Aviveko soldaduak berriro Gazan sartu eta Poliziaren postu bat suntsitu dute

Israelgo Armadak atzo aurkitu zituen asteartean desagertutako bi nerabeen hilotzak, Zisjordanian.

Liskarrak berriro ere gogortu dira Palestinan, Israelek lau hilabeteko umea hil zuenetik

Agentziak | TEL AVIV

Israelgo Armadak astelehenean lau hilabeteko ume palestinar bat hil zuenez geroztik, berriro ere gogortu da gatazka giroa Ekialde Hurbilean, eta atzo harrikadaz hildako bi nerabe israelarren gorpuak aurkitu zituzten Zisjordaniako Tekoa asentamenduko kobazulo batean, Palestinan; asteartean desagertu ziren gazteak. Israelgo Poliziak uste du palestinarrek hil zituztela, eta hilketaren uszteko zenbait errudun atxilotu zituen.

Ariel Sharon Israelgo lehen ministroak salatu zuen «hilketeta izugarria» izan zela nerabeei gertatutakoa, eta Palestinako Aginte Nazionalari eskatu zion «terrorismoa geldiarazi eta israeldar eta juduen aurkako pozoia zabaltzeari uzteko». Simon Peres Atzerri ministroak, berriz, Ekialde Hurbileko indarkeria tinkoago arbuizatzeko dei egin zion Europako Batasunari.

Saeb Erekat negoziatzaile palestinarrek ere deitoratu egin zuen gazteen hilketeta. Haur zein zibilak, palestinar edo israeldar izan, jopuntu onartezintzat jotzen Erekaitek. «Baina bakera bide motza Israelen okupazioa amaitzea da», azpimarratu zuen.

Harriak, morteroak eta tankeak

Umeen hilketaren berri zabaldu zenean, kolono juduak palestinarren autoei harriak botatzen hasi ziren, eta Israelgo Armadak blokeatu egin zuen Tekoa ondoko Tuqu herri arabiarra. Palestinarrek asentamendu ba-

ten kontra bi mortero eraso egin zituzten, eta bomba bat bota zuten Israelgo Armadaren kontrol postu baten aurka.

Israelgo soldaduak Gazako iparraldean dagoen Bet Ha-

noun herrian sartu ziren, PAN Palestinako Aginte Nazionalaren esku dagoen eremuan, palestinarrek handik morteroak jaurti ondoren. Soldaduek Palestinako Poliziaren eraikin bat

suntsitu zuten, eta gero berriro erretiratu ziren.

Hamas erakundeko buruzagi espiritual Ahmad Jasinek *intifada*-ri «babes politiko eta militar nabaria» emateko eskatu zion herri arabiar eta islamikoei. Bihar Haserrearen Eguna deitu eta otoitzaren ondoren manifestazioa egiteko deia egin zion. «Etsaiarekin» harremanak hautsi, Estatu Batuetako produktuei boikot egin eta Washingoni Israel babesteari utz diezaion presionatzeko ere eskatu zion Hamaseko buruak.

Palestinaren Askapenerako Herri Fronteak hartu zuen bere gain Israelek astelehenean onrtzi batean atzemandako berrogei tona arma bidali izana.

Dany Nave ardura jakinik gabeko Israelgo ministroa Kairora joatekoa da gaur, jazarraldia geldiarazteko Egiptok eta Jordaniak proposatutako planari buruz eta Mitchel batzordearen txostenari buruz Tel Avivek duen jarrera argitzeko. Mitchel batzordearen ondorio gehienak onartzen zituztela esan zuen atzo Legebiltzarrean, baina gezurtatu egin zuen asentamendu juduak eraikitzeari uzteak jazarraldia uzten lagunduko duela.

BOZKATU

EEH

Euskal Herritarrok